

## **Martin Ugalde eredutzat hartu du AEK-k**

Iñigo Bilbao

*Egin*, 1993-03-14: 17.

Eredu izana eskertu nahi diote AEKkideek Martin Ugalde euskaltzaleari. Korrika-8 hastear dagoen une honetan, euskaraz osrtutako lan guztiak "Erroetatik mintzo" izeneko liburuskan argitaratu dizkiote. "Euskararenganako maitasuna lantzeko adore izana" eskertu nahi dio Korrikak Ugalderi.

(...)

Ugaldek berak hartu zuen hitza azkenik. Erroetatik mintzatu zitzaien AEKkideei eta Izagirreri. Korrikaren antolatzaileez esan zuen, "Rikardo Arregiren kemena eta giharrea dutela berekin". AEK "beti ari dela eskean" esan zuen, eta horrek ere ematen diola AEKri "bere Arregitar kemena", esan zuen Ugaldek. Rikardo ari zela "eta ez besteak, argitu zuen.

Ez AEK ez AEKkideak, ez direla "kristal gardenez" egindakoak onartu zuen, haragi-hezurrezkoak baizik. Baina hori bera gertatzen zaie, Ugalderen esanetan, agintariei ere. Agintea eta aginduak jasotzen dituztenen arteko elkarlana eskatu zuen.

### **Indarra eman**

Aginteak indarra badu ere, amorerik ezin badu eman, indarrak ez diola askorako balio, azaldu zuen Ugaldek: "Ez badu ematen, beharbada, indar gutxi duelako" adierazi zuen azkenik.

(...)